



2011/05/12ko prentsa-oharra

ESKaintza IMMOBILIARIOARI BURUZKO ESTATISTIKA, 2011ko 1. hiruhilekoa

**2010eko laugarren hiruhilekotik 2011ko lehenengora, EAEko etxebizitza erabilien metro koadro erabilgarriaren eskaintza-prezioa % 0,3 jaitsi da, eta berriena, % 1,2.**

**Higiezinaren agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 7,5 hilabetekoa da.**

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako 2011ko lehen hiruhilekoko eskaintza immobiliarioaren estatistikaren arabera, erabilitako etxebizitza baten metro koadro erabilgarriaren batez besteko prezioa ez da asko aldatu aurreko hiruhilekoarekiko -% 0,3-, baina aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta % 1,3 igo da, eta 3.880 euro egin ditu.

Araban agentziek saltzeko eskainitako erabilitako etxebizitzaren metro koadroaren prezioa % 0,9 jaitsi da, azken hiruhilekoan, eta 2010eko azken hiruhilekoarekin alderatuz gero, % 6,1. Gipuzkoan % 1,1 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 2,6 2010eko lehen hiruhilekoarekiko. Bizkaian, % 0,3 jaitsi da 2010eko laugarren hiruhilekoarekiko, baina azken 12 hilabeteak hartuz gero, igo egin da, guztira, % 3,4.

Donostian erabilitako etxebizitzaren metroko koadroko prezioak ia bere horretan jarraitzen du, % 0,1 igo da azken hiru hilabete hauetan. Aitzitik, epe horretan bertan Bilbon eta Vitoria-Gasteizen jaitsi egin da, % 0,7 eta % 0,9, hurrenez hurren. Azken hamabi hilabeteotako bilakaera kontuan hizanik, Donostian eta Bilbaon igo egin dira eskaintza-prezioak, % 1,9 lehenengoan, eta % 0,2 bigarrean; Vitoria-Gasteizen aldiz, hazkundea negatiboa izan da, % 6,4 gutxiago.

Bitartekari lanak egiten dituzten higiezinaren agentziek esaten dute saltzaileek % 13,1 inguru jaitsi behar izaten dutela erabilitako etxebizitzaren prezioa, salmenta gauzatu ahal izateko. Horrek esan nahi du, azken hiru hilabeteetan 1,8 puntu jaitsi dela, eta aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, % 5,4.

**Etxebizitza berri librearen metro koadroaren eskaintza-prezioa, 3.832 euroren bueltan baitabil, % 1,2 jaitsi da hiruhilekoan, eta urtebeteko epean % 4,2ko jaitsiera metatua izan du.**




Saltzeko eskaintzen den etxebizitza libre berriaren metro koadroaren prezioa jaitsi egin da hiru lurralde historikoetan 2010eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Bizkaian, metro koadroaren prezioa % 1,4 jaitsi da azken hiru hilabeteetan, eta % 4,1ko jaitsiera metatua izan du azken urtebetean. Gipuzkoan jaitsiera % 1,2ekoa da, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 7,8koa azken hamabi hilabeteetan. Arabari dagokionean, azken hiruhilekoan jaitsiera % 0,8koa izan da, baina 2010eko hiruhileko berarekin alderatuz gero, % 0,4 jaitsi da.

### **Etxebizitza libre berriaren metro koadroaren prezioa % 5 jaitsi da Bilbon azken hiruhilekoan.**

Donostian etxebizitza librearen eskaintza-prezioak % 1,4 jaitsi dira, eta Vitoria-Gasteizen, berriz, % 0,5. Azken hamabi hilabeteetan etxebizitza librearen metro koadroko eskaintza-prezioak % 12,5 egin du behera Donostian. Aldiz, Bilbon eta Gasteizen gora egin du epe horretan, lehenengoan % 0,8, eta bigarreanean, % 0,9.

### **Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza librearen prezioa 10.900 euro jaitsi dute azken hamabi hilabeteetan, hots, % 3,3.**

Etxebizitzaren m<sup>2</sup> erabilgarriaren arabera batez besteko prezioaren bilakaera etxebizitza motaren arabera eta hiruhileko bakoitzeko. 1996-2011. Euskadiko AE.  
Euroak.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eskaintza immobiliarioari buruzko estatistika

*EREDUZKO ETXEBIZITZA:* Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m<sup>2</sup> arteko azalera duena.

Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza libre berriei jarritako batez besteko eskaintza-prezioa 314.800 eurokoa izan da, 2011ko lehen hiruhilekoan, % 1,0 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 3,3 aurreko hamabi hilabeteekin alderatuz gero.



Bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko prezioa -336.100 eurokoa-, etxebizitza libre berria baino 21.300 euro gehiago, batez beste, igo egin da azken hiruhilekoan, % 1,7 eta horrekin % 7,3ko igoera metatu du, azken 12 hilabeteetan; hau da, 22.800 euroko igoera.

Arabaren etxebizitza libre berriaren eskaintza-prezioak azken hiruhilekoan % 1,1 jaitsi dira, eta erabilitakoarenak % 0,2. Erreferentzia gisa 2010eko lehen hiruhilekoa hartzen badugu, etxebizitza libre berriaren prezioak % 1,6ko jaitsiera izan du, eta erabilitakoak, % 6,7koa. Lurralde horretako etxebizitza librearen batez besteko prezioa 290.700 eurokoa da, eta erabiliarena, 272.200 eurokoa.

Bizkaian lehen hiruhilekoan 315.400 eurotan eskaini da etxebizitza librea. Aurreko hiruhilekoan erregistraturiko prezioan igoera izan da, % 0,8koa, 2010eko lehen hiruhilekoarekin alderatuz gero izan duen jaitsiera-ehuneko bera, hain zuzen. Erabilitakoen prezioa igo egin da, % 3,0 laugarren hiruhilekoarekin alderatuz; hau da, aurreko urtekoarekiko % 13,1eko igoera. Egungo batez besteko prezioa 335.300 eurokoa da.

Gipuzkoak, berriz, eutsi egin die etxebizitzaren prezio garestienei, eta etxebizitza libre berria 333.200 euro kostatzen da, eta bigarren eskukoak, 395.800 euro. Lehenengo etxebizitza motaren prezioa % 1 jaitsi da azken hiru hiruhilekotan, eta bigarrenarena, % 0,7. Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza libre berriaren prezioa % 6,5 jaitsi da, batez beste, eta bigarren eskukoarena, igo, % 3,3.

***Azken hamabi hilabeteetan etxebizitza libre berriaren eskaintza-prezioa, batez beste, 25.600 euro igo da Bilbon. Aitzitik Vitoria-Gasteizen 4.700 euro jaitsi da, eta Donostian 35.300 euro.***

Azken hamabi hilabeteetan higiezin agentziek eta sustatzaileek % 6,5 igo dute Bilboko etxebizitza libre berriaren bateko eta besteko prezioa. Vitoria-Gasteizen aldez, % 1,5 jaitsi dute, eta Donostian % 7,7.

Azken hiruhilekoarekin alderatuta, etxebizitza horien salmenta-prezioa % 3,8 jaitsi da Bilbon, % 2 Donostian, eta % 1,2 Vitoria-Gasteizen. Batez besteko prezioa 422.100 eurokoa da Bilbon, 421.300 eurokoa Donostian, eta, baxuena, 309.400 eurokoa, Vitoria-Gasteizen.

Erabilitako etxebizitzari dagokionean, Vitoria-Gasteizen apenas jaitsi da prezioa, % 0,2 besterik ez. Eta Donostian eta Bilbon igo egin da, % 1,6. Azken hiriburu horretan 2010eko lehen hiruhilekotik % 7,7ko igoera gertatu da ---28.600 euro gehiago batez beste--- eta % 6,7koa -31.800 euro gehiago--- Donostian. Alabaina, Vitoria-Gasteizen batez besteko prezioa % 6,8 jaitsi da, 20.200 euro, alegia.

**Alokatzeko etxebizitza libreen batez besteko errenta 917,5 eurotan dago, eta babestutakoena -BOE eta etxebizitza sozialena-, 216,2 eurotan.**



ETXEBIZITZA, HERRI LAN  
ETA GARRAIO SAILA  
Zerbitzu Zuzendaritza  
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,  
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES  
Dirección de Servicios  
Órgano Estadístico Específico

Etxebizitza librearen kasuan % 3,2ko igoera da hori, iazko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 2,6ko jaitsiera aurreko hiruhilekoarekiko. Babestutako etxebizitzaren batez besteko alokairua % 8,5 jaitsi da azken hiruhilekoan, baina % 4,0 igo da azken urtean.

Babestutako etxebizitzak -BOEk eta etxebizitza sozialek-, merkatuan saltzeko eskainitako hamar etxebizitzatetik bat baino gehiago dira, % 14,9; batez beste 109.900 euroko prezioan -1.493 euro metro koadro erabilgarriko-. Etxebizitza horien metro koadroko batez besteko prezioak % 1,3 egin du gora azken bi hiruhilekotan, eta 2010ko hiruhileko berarekin alderatuta, % 1,8.

***Higiezinaren agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 7,5 hilabetekoa da, duela urtebete baino hilabete erdi gehiago.***



ETXEBIZITZA, HERRI LAN  
ETA GARRAIO SAILA  
Zerbitzu Zuzendaritza  
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,  
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES  
Dirección de Servicios  
Órgano Estadístico Específico

| HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO<br>INKESTA EUSKAL AUTONOMIA<br>ERKIDEGOAN           |                                       | 2011ko 1.<br>hiruhilekoa |       | Aurreko<br>hiruhilekoarekiko<br>aldaketa |       | Aurreko urteko<br>hiruhileko<br>berarekiko<br>aldaketa |       |
|------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------|--------------------------|-------|------------------------------------------|-------|--------------------------------------------------------|-------|
| M2 ERABILGARRIAREN BATEZ BESTEKO<br>PREZIOA                                        |                                       | Euroak                   |       | Euroak                                   | Ald % | Euroak                                                 | Ald % |
| Euskal Autonomia<br>Erkidegoa                                                      | BOE berria/Etxeb.<br>soziala          | 1.493                    |       | 19,1                                     | 1,3   | 26,7                                                   | 1,8   |
|                                                                                    | Berri librea                          | 3.832                    |       | -45,2                                    | -1,2  | -166,0                                                 | -4,2  |
|                                                                                    | Erabilia                              | 3.880                    |       | -10,9                                    | -0,3  | 49,7                                                   | 1,3   |
| Araba                                                                              | Berri librea                          | 3.503                    |       | -28,3                                    | -0,8  | 14,4                                                   | 0,4   |
|                                                                                    | Erabilia                              | 3.340                    |       | -28,7                                    | -0,9  | -215,3                                                 | -6,1  |
| Bizkaia                                                                            | Berri librea                          | 3.843                    |       | -56,1                                    | -1,4  | -162,3                                                 | -4,1  |
|                                                                                    | Erabilia                              | 3.739                    |       | -12,9                                    | -0,3  | 124,5                                                  | 3,4   |
| Gipuzkoa                                                                           | Berri librea                          | 3.985                    |       | -49,2                                    | -1,2  | -337,1                                                 | -7,8  |
|                                                                                    | Erabilia                              | 4.636                    |       | -49,9                                    | -1,1  | -124,8                                                 | -2,6  |
| Euskal Autonomia<br>Erkidegoa                                                      | (1) EREDUZKO<br>ETXEBIZITZA           | 3.475                    |       | -20,8                                    | -0,6  | 187,4                                                  | 5,7   |
| Berria librea                                                                      | Gasteiz                               | 3.760                    |       | -20,2                                    | -0,5  | 34,3                                                   | 0,9   |
|                                                                                    | Bilbo                                 | 5.170                    |       | -270,1                                   | -5,0  | 41,6                                                   | 0,8   |
|                                                                                    | Donostia                              | 4.705                    |       | -65,7                                    | -1,4  | -675,0                                                 | -12,5 |
| Erabilia                                                                           | Gasteiz                               | 3.380                    |       | -31,5                                    | -0,9  | -231,0                                                 | -6,4  |
|                                                                                    | Bilbo                                 | 4.238                    |       | -30,7                                    | -0,7  | 6,9                                                    | 0,2   |
|                                                                                    | Donostia                              | 5.662                    |       | 4,5                                      | 0,1   | 106,5                                                  | 1,9   |
| ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOA                                                 |                                       | Milaka Euro              |       | Milaka Euro                              | Ald % | Milaka Euro                                            | Ald % |
| Euskal Autonomia<br>Erkidegoa                                                      | BOE berria/ Etxeb.<br>soziala         | 109,9                    |       | -0,3                                     | -0,3  | -2,9                                                   | -2,6  |
|                                                                                    | Berria librea                         | 314,8                    |       | -3,2                                     | -1,0  | -10,9                                                  | -3,3  |
|                                                                                    | Erabilia                              | 336,1                    |       | 5,7                                      | 1,7   | 22,8                                                   | 7,3   |
| Araba                                                                              | Berria librea                         | 290,7                    |       | -3,3                                     | -1,1  | -4,7                                                   | -1,6  |
|                                                                                    | Erabilia                              | 272,2                    |       | -0,4                                     | -0,2  | -19,5                                                  | -6,7  |
| Bizkaia                                                                            | Berria librea                         | 315,4                    |       | 2,4                                      | 0,8   | -2,6                                                   | -0,8  |
|                                                                                    | Erabilia                              | 335,3                    |       | 9,8                                      | 3,0   | 38,8                                                   | 13,1  |
| Gipuzkoa                                                                           | Berria librea                         | 333,2                    |       | -3,5                                     | -1,0  | -23,0                                                  | -6,5  |
|                                                                                    | Erabilia                              | 395,8                    |       | -2,8                                     | -0,7  | 12,5                                                   | 3,3   |
| ETXEBIZITZA ESKAINTZA                                                              |                                       | Unitateak                | %     | Unitateak                                | Ald % | Unitateak                                              | Ald % |
| Euskal Autonomia<br>Erkidegoa                                                      | Gutzizkoa                             | 32.680                   | 100,0 | 3.760                                    | 13,0  | 4.258                                                  | 15,0  |
|                                                                                    | BOE berria/Etxeb.<br>soziala          | 4.477                    | 17,8  | 905                                      | 25,3  | -439                                                   | -8,9  |
|                                                                                    | Berria librea                         | 4.689                    | 19,4  | 93                                       | 2,0   | -341                                                   | -6,8  |
|                                                                                    | Erabilia                              | 20.831                   | 51,2  | 2.647                                    | 14,6  | 5.895                                                  | 39,5  |
|                                                                                    | Etxeb. Soziala/Librearen<br>Alokairua | 2.683                    | 11,5  | 115                                      | 4,5   | -858                                                   | -24,2 |
| ALOKAIRU ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO<br>ERRENTA                                     |                                       | Euroak                   |       | Euroak                                   | Ald % | Euroak                                                 | Ald % |
| Euskal Autonomia<br>Erkidegoa                                                      | BOE / Soziala                         | 216,2                    |       | -20,2                                    | -8,5  | 8,3                                                    | 4,0   |
|                                                                                    | Librea                                | 917,5                    |       | -24,5                                    | -2,6  | 28,7                                                   | 3,2   |
| ETXEBIZITZA BAT SALTZEKO BEHAR DIREN<br>BATEZ BESTEKO HILABETEA                    |                                       | 7,5                      |       | -1,7                                     | -18,8 | -0,7                                                   | -8,1  |
| AZKEN PREZIOAREN MURRIZKETAREN<br>BATEZ BESTEKO EHUNEKOA. ETXEBIZITZA<br>ERABILIAK |                                       | %                        |       | Aldea<br>portzentajeazko<br>puntutan     | Ald % | Aldea<br>portzentajeazko<br>puntutan                   | Ald % |
| EAE                                                                                |                                       | 13,1                     |       | -1,8                                     | -12,0 | -5,4                                                   | -29,2 |
| Araba                                                                              |                                       | 5,2                      |       | -2,5                                     | -33,0 | -6,4                                                   | -55,3 |
| Bizkaia                                                                            |                                       | 14,5                     |       | 2,9                                      | 25,1  | 1,9                                                    | 15,0  |
| Gipuzkoa                                                                           |                                       | 13,2                     |       | -8,2                                     | -38,3 | -15,4                                                  | -53,8 |

(1) Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m2 arteko azalera duena.



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN  
ETA GARRAIO SAILA**  
*Zerbitzu Zuzendaritza*  
*Estatistikarako Organo Berezia*

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,  
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**  
*Dirección de Servicios*  
*Órgano Estadístico Específico*

#### Ohar metodologikoa

2011ko lehen hiruhilekoko datuak 173 higiezin-agentzik eta 5 etxebizitza baino gehiagoko sustapenak zituzten 161 sustatzailerik osatutako lagin bati hiruhilekoaren amaieran egindako elkarriketatetik atera dira. Nolanahi ere, ez dira salmenta-prezioak, eskainitako prezioak baizik. Prezioak, eskaintza eta alokairuak kalkulatzeko, laugarren mailako batez besteko mugikorak ateratzen dira, ausazko aldatetak gutxiagotzeko.

---

#### **Informazio gehiago nahi izanez gero:**

*Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia*

*Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena*

*Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07*

*Prentsa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.*

*WEBGUNEAK: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.*